



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 3a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2008ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

—Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

—Foru Lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontrauneko errekurtsoa erretira dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakariari eskatzen zaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen kide izateko proposatu beharreko pertsonak izendatzea (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2008ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2008ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2008ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2008ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2008ko kontu orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 156. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2008ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Haien edukia honako agiri eta euskarriotan bildu da:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundearen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena ere ageri da.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak luze eta zabal azaltzen baitira, haien auditoretza-txostenekin batera. Aurrekontuetako programen oroit-idazkiak ere sartuta daude euskarri horretan.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko apirila-

ren 13ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena, aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de

Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko apirilaren 27ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa.

Proposamen hori 2010eko apirilaren 22ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontrasuneko errekurtsua erretira dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontrasuneko errekurtsua erretira dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontrasuneko errekurtsua erretira dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa bete dezan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen barrenean lege hori osoki aplikatzen dela berma dezan.

3. Lege horri aurkezturiko konstituziokontraktasun-errekurtsua erretira dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte."

Legebiltzarrak 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko apirilaren 30eko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen zaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen zaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu."

Legebiltzarrak 2010eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko apirilaren 30eko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen kide izateko proposatu beharreko pertsonak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an egindako bileran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen kide izateko pertsona hauek hautatzea:

- Alberto Catalán Higuera jauna.
- Carlos García Adanero jauna.

– Roberto Jiménez Alli jauna.

– Samuel Caro Sádaba jauna.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
